

ANTONIO ZAVALA, S. I. *Lexo bertsolaria*. Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1968.

Juan Jose Sarasola Azkue, «Lexo» izenez ezagutzen zan bertsolaria, Lezon jaioa zen 1867-an eta bertan hila 1952-an. Zavalak bildu dizkigu bere bizitza berriak eta bertso guziak.

Gure bertsolarij hau egiazko kronista agertzen da. Zavala-ren bilduma hoiek ematen badizkigute bertsolaritza mailan herri literaturak izan duen mugimendu biziaren neurria, «Lexo» dugu, seguru aski, kronikalari gisan agertzen zaigunik hoberenetakoa. Liburua irakurtzeaz gogoratzen gera oraindik zenbat eta zenbat holako izango dugun ilunpean, asko galduak eta beste asko galtzeko harrisguan. Jarrai dezala biltzaileak bide hau urte askoan, galzoriko askoren salbame-nerako.

Leizaolaren *La «Crónica» en la poesía popular vasca* lan ederrean anitz bertso gutxi ezagutuak eta maiz ez ezagunak ematen ditualarik, baina Zavala argitaratzen ari dan hoietan oraindik badira Leizaola-ren bezalako saiakera liburuan tokia merezi dutenak, kondairaren argigarri.

1894-an jarritakoak eta batez ere 1903-an, garaiko kezka ager-
tzen ditu, baina garaiko kezka sozialak ez-ezik, baita ere langile
jendearen alde jarri, «Lexo» beretariko bat zanez. 1904-an igandea
jai egitearen alde ari da. Baina ikusten da gazte kementsua zelarik
eginak direla bertso hoiek. Eta, gizona helduala, bere ausartasuna
epelduaz joan zen, eta inguruko gertariz mintza beharrean hurrutiko
prolemak ditu berri, Europako gerratea eta hango politika prolemak,
eta hoietan ere beheraka, batez ere zahartzarora, erlijio bertsoetan
gordetzen du bere burua. Europa-ko gerratez hainbeste jardun zena,
1936-tik 1943-ra ixilik bizi da eta azken urteetan gaiez eta kemenez
eroria joan zen.

Joanak joan eta esanak esan, gaztaroko bertsoa haiek zutik geldi-
tugo dira Euskal Herriaren sozial-kondairarako. «Lexo»-ri, langile
bezala, gaitzak eta nekeak min ematen diote, min horren nundikakoa
zihur ezagutzen ez bazuen ere. Maiz gertatzen den bezala, zapatak
min eman eta nun edo zergatik jakin ez, batez ere estrukturaren par-
tetik bada. Orduan horma behar da forma egokia emateko eta ho-
rrela erabagi ditzake. Gizonon artean hormak estuak badira ez dute
erremediorik behar haina zabaldu arte edo betiko bota arte. Baina
«Lexo» gizajoak ez ekien holakorik. Gizajoa? Behar bada gu giza-
joak, hormen estrukturaren berri zerbait dakigunok. Ez ote gera
bizi hura baino larriago? Gela txiroan jaiotzeak zenbat kalte dituan
berakin, guk zerbait badakigu.

Maiz, bero bertsoak tristeak eta pesimistak badira ere, bertsola-
riak berakin izaten duan umorezko ezten zorrotza etzaio falta, ezta
aipatu ditugun langile arazoko bertso hoietan ere. Botoetara behartu
zituztenean bezala, 1894-an,

*Botorik ez degunak
lanteritik fuera,
abill-ustian tonto
gertatu gera;
asko dakiten oiek
gutxi gora-bera
gu despatxatutzeko
artu dute era;
daukaten kolera,
denentzat galera,
oien ezaguera
dakigula gera;
ez dago segurantzik
onez aurrera.*

J. S. M.